

# SAGARDOETXEAREN NORABIDEA ERABAKITZEKO HERRI GALDEKETA

Astigarragako Udalak herri galdeketa egingo du otsailaren 6an, herriko eragileen, elkarteen, udaleko ordezkarien eta norbanakoen artean Sagardoetxea museoari buruz landu duten proiektuaren gainean.

**A**stigarragako (Gipuzkoa) Sagardoetxea Euskal Sagardoaren Museoaren hama-bost urteko ibilbideak bilakaera handia izan duenez, museoaren etorkizunari buruzko hausnaketa egin beharra eragin du.

Aurreko urteetan hainbat proposamen landu badira ere, ia zko udaberrian Astigarragako hainbat eragile, elkarteetako ordezkari, Udal Osoko Bilkurako hainbat ordezkari eta norbanakoren parte hartzearekin, hausnaketa talde bat osatu zen Sagardoetxearen etorkizunaren norabideari buruzko proposamen bat lantzeko. Horrez gain, herritarrekin kontraste saioak ere antolatu dira landutako proiektuaren nondik norakoak azaldu eta haien ekarpenak jasotzeko.

## ARDATZ NAGUSIAK

Lan prozesu horretatik ateratako ondorio nagusiak, eta etorkizuneko Sagardoetxeak kontuan hartu beharko lituzkeen ardatz nagusiak, honako hauek izan dira:

- Sagardoetxea herriaren dinamikan errotua egotea, Astigarragaren identitatearekin bat eginez.
- Sagarraren kultura sustatzeko askotariko ekarpen eta ekimenen bilgunea eta lankidetzarako eremua izatea.
- Gaur egun Sagardoetxeak bilte-



Sagardoetxea Euskal Sagardoaren Museoa. GORKA RUBIO / FOKU

gian dituen pieza etnografikoak erakusteko eta tresnak berritzeko lekua izatea: Erbitegi Etxeberrri baserriko dolarea, upelak egiteko Gartziategiko tresnak, matxakak, eta abar.

- Dokumentazio Zentroari eskainitako gune bat egotea.
- Gaur egungo sagastian aterpe bat eta azalpen didaktikoak jar-tzea.

• Sagarraren eratorrieekin produktuak egiteko gune bat izatea.

Behar horiek identifikatuta, eta hausnarketa taldeak landutako Sagardoetxearen etorkizuneko proposamenari baiezkoa edo ezezkoa emateak berarekin dakirrena herritarrei azaltzeko asmoz, Astigarragako Udalak komunikazio kanpaina bat martxan jarri du informazio bideoak, eskuo-

rria, informazio panelak, informazio bilerak, prentsaurreko bat, sare sozialen bidezko sustapena eta Sagardoetxearen informazio bisitak antolatuz.

Komunikazio euskarri horietan Sagardoetxe berriaren izaera, norabidea, egitura, kokapena edo finantzaketaren inguruko informazioa zehaztu da. Izan ere, behin proposamena landuta, As-

stigarragako Udalak herri-galdeketa bidez astigarrak ados dauden edo ez jakin nahi du, eta horretarako egingo du herri galdeketa otsailaren 6an.

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: [www.sagardoarenlurraldea.eus](http://www.sagardoarenlurraldea.eus)

## BIZKAIAN BIZKAIKOA.

[www.bizkaikosagardoa.eus](http://www.bizkaikosagardoa.eus)

ETXEBARRIA SAGARDOA  
LEARTIBAI SAGARDOA LAN. KOOP.  
UXARTE SAGARDOA  
EGUSKIZA SAGARDOA  
AXPE SAGARDOA  
LAKA-ERDI SAGARDOA  
ERDIKOETXE SAGARDOA  
ETXERRIAGA SAGARDOA

